



TALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTITIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTITIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

ZER DA TALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA?

Talde Psikosozial Judiziala Justizia Sailburuordetzaren menpeko organo teknikoa da; talde honen zeregina izango da jurisdikzio guztietako Epaitegi, Auzitegi eta Fiskaltzei, eta batez ere zigor arloko eta familiako jurisdikzioetakoei, bere espezializazio alorrean laguntzea eta aholkularitza teknikoa eskaintzea.

NORTZUEK OSATZEN DUTE ETA NON DU EGOITZA?

TPSJ Psikologo, Gizarte Laguntzaile, Hezitzaile eta administrariez osatuta dago, Koordinatzaile Orokor batek eta Lurralde Koordinatzaileek zuzenduta. Lurralde eremuari dagokionez, Talde bat dauka Lurralde Historiko bakoitzean; Bizkaian, Bilbo eta Barakaldoko eraikin-judizialean dauka egoitzak, Gipuzkoan Donostiako eraikin-judizialean eta Araban Gasteizkoan.

ZEINTZUK DIRA BERE ZEREGINAK?

Talde Psikosozial Judizialari, bakoitzari bere esparruan, honako funtzio hauek dagozkie:

- Organu judizial eta fiskalek hala eskatuta, peritu-txosten psikologiko, soziofamiliar eta gizarte-hezkuntzakoak jaulkitzea eta berauek epaiketetan defendatzea.

- Adingabekoen Erantzukizun Penaleko Legeak ezartzen duenari jarraituz, "talde teknikoak" egin beharrekoak diren eginkizunak betetzea.
- Adingabekoen onurarako diren prozesuetako froga/egintzetan magistratu eta fiskalei laguntzea.
- Legeak beren beregi ezartzen dituen bestelako parte hartzeak.

[Peritu-eginkizunetan Taldeak aditu izaera izango du honako arlo hauetan:](#)

- Adingabekoei dagokien gaietan: adingabekoen Erantzukizun penala (aholkularitza, laguntza teknikoa eta bitartekaritza), adinbagekoen babesa, erasoak, sexu-abusuak eta haur-testigantza.
- Familia-zuzenbideko prozedurak.
- Balorazio psikologiko eta soziofamiliarak, batez ere sexu-delitu eta etxeko indarkeriako biktimen kasuetan eta testigantza eta uko egitearen balorazioa.
- Nortasun eta psikometria azterketa osagarriak egozgarritasun-balorazioetan eta ezintasun-egoeretan.

NOLA ETA NORA JO?

Organu judizial eta fiskaltzek peritu-txosten edo parte hartze teknikoentzako eskabideak zuzenean luza diezazkiokete Talde Psikosozial Judizialari, koordinatzaileari bidaliz, postaz zein faxez.

Hauexek dira helbideak:

BIZKAIKO TALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Bilboko Justizia-jauregia - Barroeta Aldamar kalea, 10, 8. solairua
Tfnoa: 944 016 730 - Faxe: 944 016 998
48001.- BILBO

Barakaldoko Justizia-jauregia - Bide Onera Plaza z/g 1. solairua
Tfnoa: 944 001 000 - Faxe: 944 001 072
48902.- BARAKALDO

ARABAKO TALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Gasteizko Justizia-jauregia
Gasteiz Etorbidea kalea, 18 1. solairua
Tfnoa: 945 004 833
Faxe: 945 004 858
01008.- VITORIA-GASTEIZ

GIPUZKOAKO TALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Donostiako Justizia-jauregia
Teresa de Calcuta plaza 1, 1. solairua.
Tfnoa: 943 004 353 - Faxe: 943 000 706
20012.- DONOSTIA

BESTE ZERBITZUEKIKO KOORDINAZIOA

Biktimei buruzko peritu-txostenen kasuetan, koordinazio erraztekoan eta biktimari ezinbesteko eragozpenak saihestearren, Talde Psikosozial Judizialaren eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen arteko barne protokolo bat osatu da. Beronen arabera, bakoitzaren benetako funtzioak alde batera utzita, adin nagusiko biktima bati dagozkion txostenak Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen Zuzendariordeari eskatuko zaizkie eta adingabekoei dagozkienak Talde Psikosozial Judizialari; euren artean koodinatura jardungo dute eta eskatzaileari arlo biei dagozkien txostenak bidaliko dizkiete.

Era berean, Delituko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin etengabeko eta norabide biko koordinazioa aurreikusten da.

